


EUSKAL HERRIKO LEIENDAK

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA | JUAN LUIS LANDA



erein

EUSKAL HERRIKO LEIENDAK

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2002ko apirilean
2. argitalpeneko 1. inprimatzea: 2021eko ekainean

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri Beltza

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Juan Luis Landa

Irudiak:

Juan Luis Landa

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2002

ISBN: 978-84-9109-735-8

L.G.: D 739-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net

EUSKAL HERRIKO LEIENDAK

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA
Juan Luis Landa

erein

EUSKAL LEIENDETAN AIPATZEN DIREN
IZENAK ETA LEKUAK

EGUZKILOREA	9
MARI <i>Anboto, Bizkaia</i>	13
TARTALO <i>Zegama, Gipuzkoa</i>	17
OSINEKO BASILISKOA <i>Mendoza, Araba</i>	21
LAMIA ETA HARGINA <i>Zuraide, Zuberoa</i>	26
TEODOSIO GOÑIKOA <i>Aralar, Nafarroa</i>	30
MAMARRUAK <i>Añes, Araba</i>	34
MATEO TXISTU <i>Tolosa, Gipuzkoa</i>	39
ARRASATEKO HERENSUGEA <i>Arrasate, Gipuzkoa</i>	43
ZALDIARANGO MAIRUA <i>Zaldiaran, Araba</i>	47
LIGIKO ZUBIA <i>Ligi, Zuberoa</i>	52
LAMIA MAITEMINDUA <i>Orozko, Bizkaia</i>	56
HONTZURIA <i>Araba</i>	61
MONDARRAINGO HERENSUGEA <i>Itsasu, Lapurdi</i>	65
JUAN BELDURGABEA <i>Etxarri Aranatz, Nafarroa</i>	71
GIOMAR ETA ADARBAKOITZA <i>Betelu, Nafarroa</i>	75
URREZKO ZEKORRA <i>Birgara, Araba</i>	80
SALBATOREKO GANDERAILUA <i>Mendibe, Behe Nafarroa</i>	84
LAMIEN OPARIA <i>Ultzama, Nafarroa</i>	89
BALTZOLAKO SUGOIA <i>Dima, Bizkaia</i>	93
BARATXURI <i>Andoain, Gipuzkoa</i>	97
TXINDOKIKO MARI <i>Amezketta, Gipuzkoa</i>	101
MAIRUAREN LEIZEA <i>Fitero, Nafarroa</i>	106
ILARGIA <i>Antzuola, Gipuzkoa</i>	110
SORGINAREN UKENDUA <i>Zaitegi, Araba</i>	114
IKAZKINA ETA HERIOA <i>Elbetea, Nafarroa</i>	118
SORGINBERRI <i>Kortezubi, Bizkaia</i>	124
ANXO <i>Zuia, Araba</i>	128
SORGINAK ETA KONKORRAK <i>Urdax, Lapurdi</i>	133
ALOSTORREA <i>Deba, Gipuzkoa</i>	137
DORRE MISTERIOTSUA <i>Aramaio, Araba</i>	144

ZIRIPOT <i>Lantz, Nafarroa</i>	149
BELTZUNTZEKO GASTON <i>Beltzuntze, Lapurdi</i>	153
LAMIA GOZOZALEA <i>Zuberoa</i>	158
SORGIN LAPURRA <i>Asteasu, Gipuzkoa</i>	162
SAGUAK <i>Kanpezu, Araba</i>	167
MUNAGURENGO LAMIAK <i>Gorozika, Bizkaia</i>	172
TARTARO ESKERRONEKOA <i>Behe Nafarroa</i>	176
JENTILAK <i>Ataun, Gipuzkoa</i>	182
HIRU OLATUAK <i>Bermeo, Bizkaia</i>	187
PRINTZESA TRISTEA <i>Zuberoa</i>	191
MENDIONDOKO EULIAK <i>Behe Nafarroa</i>	196
DOMINIKA <i>Urkiza, Araba</i>	200
GALTLAGORRIAK <i>Zarautz, Gipuzkoa</i>	204
TXERRENEN ADINA <i>Mañaria, Bizkaia</i>	208
GIZONA ETA SUGEA <i>Apiñaniz, Araba</i>	212
ZEZENGORRI <i>Orozko, Bizkaia</i>	216
LEZAOKO AMILAMIA <i>Agurain, Araba</i>	221
BARGOTAKO SORGINA <i>Bargota, Nafarroa</i>	226
BEHOR ZURIA <i>Atharratze, Zuberoa</i>	230
ARBULUKO INDARTSUA <i>Arbulu, Araba</i>	235
ZUGARRAMURDIKO SORGINAK <i>Zugarramurdi, Nafarroa</i>	240
TXAKUR ZUZIDUNA <i>Berriz, Bizkaia</i>	244
NI NEU NAIZ <i>Gatzaga, Araba</i>	248
MUNTXARAZ <i>Abadiño, Bizkaia</i>	252
DOMINISTIKUN <i>Baztan, Nafarroa</i>	256
LIHOAREN PENAK <i>Elantxobe, Bizkaia</i>	260
TXAINDIA <i>Mitirina, Behe Nafarroa</i>	264
BIRILA ABADEA <i>Leire, Nafarroa</i>	269
GIZONA ETA KATUA <i>Eskoriatza, Gipuzkoa</i>	273
ATARRABI <i>Ezpeleta, Lapurdi</i>	277
SALTZEDOKO SORGINA <i>Saltzedo, Araba</i>	281
ZUHAITZ LAPURRA <i>Leitza, Nafarroa</i>	285
LAU ANAIA UMEZURTZAK <i>Dima, Bizkaia</i>	288
BAIGURAKO AINGERUA <i>Sara, Zuberoa</i>	292



EGUZKILOREA

J. M. Barandiaranek bere "Euskal Mitologiaren Hiztegia" esaten duenez, antzinako euskaldunentzat Lurra Eguzkiaren eta Ilargiaren amazen, eta, horrenbestez, Lurrak ematen zien bizia landareen eta abereen munduari, eta horretan sartzen zen gizakia ere. Lurretik sortzen zen, eta Lurrera itzultzen zen berriro. Horregatik, hain zuzen, gure arbasoek opariak egiten zizkioten Lurraren, bere laguntza eskatzeko.

Eguzkia eta Ilargia ahizpak zirela uste zuten gainera, biak emeak, beraz; eta lurraren erraietan euskaldunen pentsamendua betetzen zuten jeinuak bizi zirela uste zuten.

Orain dela milaka eta milaka urte, gizonak munduan zehar zabaltzen hasi zirenean, ez zen ez eguzkirik ez ilargirik. Gizonak eta emakumeak ilunpetan bizi zien denak, suzko zezenen, zaldi hegalarien edo herensuge erraldoien itxura hartuta lurraren erraietatik ateratzen ziren mamuek izuturik.

Gizakiek, bada, Lurrari laguntza eskatzea deliberatu zuten, etsimen hartan.

–Amalur, Lur ama –erregutu zioten–, arren eskatzen dizugu, babes gaitzazu hondatu behar gaituzten arriskuetatik.

Lurra lanpeturik zebilen erabat, eta ez zien jaramonik egin gizakiei; haiek, ordea, ez zuten atertzen, eskatu eta eskatu, eta azkenean gogoan hartu zuen eskatzen ziotena.

–Laguntzeko eskatzen didazue, seme-alaba nireak –esan zien–, eta lagunduko dizuet. Izaki argitsu bat sortuko dut, eta Ilargi deituko diozue.

Eta Lurrak Ilargia sortu zuen.

Hasieran izu-izuturik zeuden horrekin gizakiak, eta beren haitzuloetan gordeta, handik irteten ausartzen ez zirela, baina berehala ohitu ziren haren argitan ibiltzen.

Gizakiak bezala, jeinuak eta sorginak ere oso izutu ziren zeruan argizko gauza hura ikusten hasi zirenean, baina haiek ere ohitu egin ziren, eta berehala hasi ziren haiek ere beren leizeetatik irten eta gizakiei erasotzen.

Berriro joan zitzaizkion gizakiak Lurrari erreguka.

–Amalur –esan zioten–, esker guztiak ematen dizkizugu Ilargi amandrea eman diguzulako, baina zerbait indartsuagoren beharra dugu, lurpeko jeinuak erasoka ari baitzaizkigu oraindik.

–Ongi da –erantzun zien Lurrak–, Ilargiak baino ere argi gehiago duen izaki bat sortuko dut. Eguzki deituko diozue. Eguzkiak eguna egingo du, eta Ilargiak gaua.

Eta Lurrak Eguzkia sortu zuen.



Hain zen handia, hain argia eta hain beroa Eguzkia, non oso geldi-
diro ohitu behar izan baitzuten gizakiek haren argitara, baina pozgar-
ria izan zen benetan hura, zeren haren beroari eta haren argiari esker
landareak eta zuhaitzak hazten hasi baitziren. Mamuek eta sorginek
ezin izan zuten, ordea, egunaren argitasunera ohitu, eta harrezkero
gauetz baizik ez dira ateratzen.

Berriro joan ziren gizakiak Lurrarengana.

–Amalur –esan zioten–, pozik gaude eta eskerronez ama Ilargia
eta ama Eguzkia eman diguzulako, baina beste zerbait behar dugu
oraindik, zeren, nahiz eta egunez den bitartean arazorik izan ez, gaua
datorrenean, mamuak beren leizeetatik ateratzen dira eta erasoka
hasten baitzaizkigu.

Lurrak abegi onez entzun zituen honetan ere gizakien eskariak.

–Ongi da. Berriro lagunduko dizuet, baina hau izango da azke-
na. Lore bat sortuko dizuet, guztiz ederra, hain ederra ere, non gaue-
ko mamuek ikusten dutenean Eguzkia bera dela usteko baitute, eta
bakean utziko zaituzte.

Eta Lurrak eguzkiaren lorea sortu zuen, *Eguzkilorea*, gaur egu-
nean oraindik gure etxeak mamu gaiztoetatik, sorginetatik, lamieta-
tik, gaixotasun ekarleetatik, ekaitzetatik eta tximistatik babesten
dituena.





MARI

Mari euskal mitologiako jainkosa nagusia da. Bizileku asko ditu, baina Anbotoko mendian duena da haren bizilekurik ezagunenetako bat. Horregatik, Anbotoko Dama ere esaten zaio.

Marik badu senarra, Maju. Ostiral arratsaldeetan joaten zaio ikustera eta ilea orrazten dio bere urrezko orraziarekin. Baditu bi seme ere: Atarrabi eta Mikelats; Atarrabi ona da eta Mikelats, berriz, gaizkilea. Batzuetan, Mari gizon hilkorrekin ezkontzen da eta haiekin seme-alabak izaten ditu.

Era askotara irudikatu izan dute, baina bada bat niri bereziki atsegin zaidana: emakume eder, ile luzea, eskuineko eskuan urrezko gaztelu bat eta oinetan herensuge bat duela.

Ondorengo elezahar hau Don Pedro Barcelos kondeak XVI. mendean idatziriko "Libro dos Linhagens" liburutik hartua da.

Don Diego Lopez Harokoa Bizkaiko Jauna zen XIV. mendean. Ehiztari porrokatua zen eta ahal zuen guztietan ateratzen zen basurde edo beste piztiaren baten bila. Izan ere, garai hartan, horrelako animaliez beteak baitzeuden gure mendiak.

Egun batean, pieza on baten atzetik zebilela, emakume bat ikusi zuen haitz baten gainean kantari. Guztiz ahots zoragarria zuen eta Don Diegori haren jabea ezagutzeko gogo bizia egin zitzaion; hala, harengana hurbildu zen.

Bere bizi guztian ez zuen horren emakume ederrik ezagutu. Garaia eta dotorea zen, larruzal zuri leunekoa. Haren begi beltz sakonek kontrastasun bizia egiten zuten ia lurreraino iristen zitzaion ile urre kolorekoarekin. Urrez bordatutako soineko berde bat zeraman eta kopetan zinta bat, urrezkoa hura ere. Hainbestearainoko distira zuen emakume hark, non itsu-itsuan maitemindu baitzen Don Diego.

–Nor zara? –galdetu zion.

–Anbotoko Dama –erantzun zion hark.

–Zu Anbotoko Dama zarenez eta ni Bizkaiko Jauna, nahi al duzu nirekin ezkondu?

Damak onartu zuen, baina gauza bat aginduarazi zion: bere aurrean ez zuela inoiz aitarenik egingo. Mari eta Bizkaiko Jauna ezkondu ziren eta semea eta alaba izan zituzten; Alabari urraka deitu zioten eta semeari Iñigo Gerra jarri zioten izena.

Urteak aurrera zihoazen eta denak zoriontsu bizi ziren Diego Lopez Harokoaren gazteluan. Egun batean, Don Diegok basurde handi bat ekarri zuen ehizatik bueltakoan; sukaldariek berehala maniatu zuten afarirako. Familia osoa mahaian zegoela etxeko bi zakur sartu ziren jangelan eta zaunka hasi janari eske. Bat, zakur alano handi bat zen, oso oldarkorra, eta bestea, urtxakurra, askoz txikiagoa. Don Diegok, barrez, basurde hanka bat bota zien. Bi zakurrek gogor ekin zioten hankari, zeinek zeini kenduko, eta, denen



harridurarako, txakur txikiak handia hil egin zuen eta basurde hanka herrestan hartuta alde egin zuen. Don Diegok, ezin izan zuen erremediatu, eta aitaren egin zuen, esanez:

–Jaungoiko nirea! Nire bizian ez dut horrelakorik ikusi!

Une hartantxe bertan, Marik bere alabari eskutik heldu eta biek hegan alde egin zuten leiho batetik. Geroztik ez zen haien berririk izan.

Urteak joan ziren eta, gaztelarren aurkako gerra batean preso hartu zuten Don Diego eta Toledoko gotorleku batera eraman zuten. Iñigo Gerra aholku eske ibili zen bere ahaideen artean, aita askatzeko zer egin; inork ez zekien, ordea, nola askatu aita, harik eta behin agure zahar bizarzuri batek honela esan zion arte:

–Iñigo, laguntza behar baduk hoa heure amarengana, hark esango dik zer egin.

Iñigo, bada, Anbotora joan zen, eta, haratu zenean, haitz baten gainean ikusi zuen Mari.

–Iñigo Gerra, seme –esan zion–, hator niregana, bazekiat zertara hatorren eta; aita espetxetik nola askatu galdetzera hator.

Marik oihu bat egin zuen, eta zaldi zuri eder ongi zelatu bat azaldu zen.

–Pardal dik izena –esan zion–. To hiretzat. Guduak irabazten lagunduko dik, baina zela ez diok inoiz kendu behar, ezta jan-edanik eman ere. Gaur bertan Toledora eramango hau eta biak ekarriko zaituzte etxera.

Eta hala, Iñigo zaldi gainera igo eta, konturatu zenerako, aita preso zeukaten gazteluko patioan zegoen. Bilatu zuen, eskutik heldu zion eta zaldia zegoen tokira eraman zuen, eta biak itzuli ziren Bizkaira; inork ezin izan zien ezer egin, biak ikusezin bilakatuak baitziren, bitartean.

Orduz geroztik, Bizkaiko Jaunaren etxean hiltzen zituzten behi guztien barrukiak haitz baten gainean uzten zituzten Marirentzat opari. Eta, esaten zutenez, hala egin behar omen zen, bestela gaitz izugarriren bat etorriko omen zen eta, Jaunaren edota etxearen gain. Eta halaxe geratu zen, gertatu ere. Don Diegoren birbiloba batek ez zuen gehiago oparirik egin, eta begi bat galdu zuen ohitura hura ez betetzeagatik.

